

## LAU ERRUGABEEN MISTERIOA

Kaixo, Martin naiz, Bartzelonako polizia bat. Laura nire laguntzailea da eta gaur misterio bat daukagu konpontzeke auzitegi batean. Datu gutxi eta gorpu bat ditugu. Lekukoek esan dutenaren arabera, Auzitegiko itxaron gela batean zeuden, bat-batean argiak amatatu dira, guztiak altxatu dira haien lekuetatik eta argia bueltatu denean, aulki batean gorpu bat agertu da. Hilketaren arrazoa tiro bat izan dela esan digute.

—Baina, zaila izango da. Lau susmagarri ditugu —kexatu zen Laura.

—Egon trankil, ziur, azkenean, erruduna harrapatuko dugula—esan nion.

Arratsaldean, auzitegira joan gara ikertzera eta epailearekin hitz egin dugu.

—Ikusi duzu zerbait arraro hemen? —galdetu dio Laurak.

—Ez, nik ez dut ezer sumatu —esan du epaileak.

—Beno, susmagarriekin hitz egingo dugu—jakinarazi diot.

Susmagarriekin hitz egin ostean, ez genekien nondik hasi. Eman dizkiguten pistak ez ziren oso baliagarriak. Ez ziren elkar ezagutzen eta Auzitegian trafikoko isunak ordaintzeko hitzordua zuten. Ez zen ezer larririk.

Susmagarriekin bukatu dugunean, epailearen gelara joan gara berarekin ikerketa komentatzeko. Justu-justu itxaron gelaren ondoan dagoen bulegoa da. Nik eskertu dut belaunean lesio bat dudalako eta horrela ez dut asko ibili behar izan.



Zain gauden bitartean, eskegita dituen koadroak begiratu ditugu. Oso koadro bereziak dira eta konturatu gara horietako askotan arma batekin agertzen dela epailea. Laurak okertuta zegoen koadro bat ondo kokatu du epailea sartu den momentuan.

- Eh! Ez ukitu nire koadroak! Zuk baino balio handiagoa dute!
- Barkatu, epaile jauna.
- Tira, zerbait argitu duzue?
- Momentuz ez —erantzun diot nik.
- Zuk ba al dakizu arrazoiren bat dagoen beraien artean haserre egoteko? —galdetu dio Laurak.
- Ez. Zergatik jakin beharko nuke nik hori? —galdetu du epaileak.

Arratsaldean, Laurarekin taberna berri batera joan naiz. Oso taberna berria da, ispiluz eta koadroz beteta..

—Zerbait jango duzu?— galdetu dit Laurak.

—Ez, eskerrik asko —erantzun diot mahaia bat aukeratzen nuen bitartean.

—Kar, kar, kar! Mahai honek duen koadroa oso barregarria da! Primeran aukeratu duzu mahaia, zure arbasoa ematen du —esan dit Laurak barrezka.

Mahai ondoan, txerri baten koadroa zegoen. Txerria golfera jolasten zegoen koadroan.

—Ni hobeagoa naiz golfean! —esan diot nik barrezka ere.



Orduan, Laura eskatzera joan da eta kafeko tabernariari galdetu dio ea koadro berria den.

—Bai, hor jarri behar izan dugu koadro bat, horman zulo bat dugulako eta gure biltegia ikusten delako. Irtenbide errazena koadro bat eskegitzea izan da.

Mahaira bueltatzerakoan barre pilo egin dugu biok. Bat-batean, kafea bukatu gabe zuelarik, altxatu da eta esan dit ertzain-etxera joan behar zela argazki batzuk ikertzera. Ertzain-etxera heldu naizenean, Laurak azaldu dit konturatu dela Auzitegiko itxarongela eta epailearen bulegoa ondoan zeudela eta itxaron gelan egin ditugun argazkietan ikusten dela horman zulo bat dagoela.

—Hemen! Ikusten duzu?

—Nik ez dut ezer ikusten —onartu diot.

—Goazen Auzitegira. Badakit nor den hiltzailea.

Auzitegira heldu garenean, Laura jarraian joan da epailearen bulegora. Epailea barruan zegoen eta Laura azaltzen hasi da.

—Konturatu gara atzo itxaron gelan zeuden pertsonak ez zutela ezer komunean haien artean. Ez ziren elkar ezagutzen. Baina zuk horietariko bat ezagutzen zenuen, epaile jauna. Hildakoa. Bera izan zelako duela urte batzuk zure alaba hil zuena.

—Ez nekien ezer.

—Bai, bazenekien. Zuk eman zenion Auzitegira etortzeko hitzordua.

—esan diot nik.

—Eta? Hori ez da ilegala.

—Ez, hori ez da ilegala, baina zure bulegoan zulo bat egitea eta bertatik pistola sartzea beste aldean dagoen norbait hiltzeko bai. — azaldu dio Laurak.

—Zer esan nahi duzu?

Orduan, Laurak goizean zuzen jarritako koadroa mugitu eta atzean zegoen zuloa erakutsi dio.

—Hemen egin duzun zuloa itxaron gelarekin komunikatzen da. Hor zegoen eserita biktima. Gaur goizean, ordu horretan argiak amatatu dituzu eta zure bulegotik arma hartu eta tiro bat eman diozu.

—Ordaindu behar zuen! Nire alabari egindakoagatik ordaindu behar zuen!

Eta arratsaldea epailea kartzelara eramaten bukatu dugu. Kasua golfean jolasten dagoen txerriari esker ebatzi dugu.